JP/jp

27-R.096-IN/14

**ERANSKINA - ANEXO**

**SORALUZEKO HIRI ANTOLAKETAKO PLAN OROKORRAREN INGURUMENAREN GAINEKO EBALUAZIO ESTRATEGIKOA EGITEKO ERREFERENTZIAKO AGIRIA**

**DOCUMENTO DE REFERENCIA PARA LA EVALUACIÓN AMBIENTAL ESTRATÉGICA DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE PLACENCIA DE LAS ARMAS**

**1.- AURREKARIAK**

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko 3/1998 lege orokorrak, otsailaren 27koak, 41. artikuluan eta I.A) Eranskinean aurreikusitakoarekin bat etorriz, eta plan eta programen ingurumenaren gaineko ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura erregulatzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, 4. artikuluan xedatutakoari jarraituz, hiri antolaketako plan orokorrek –aurrerantzean HAPO– ingurumenaren gaineko ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura jarraitu behar dute nahitaez.

Plan eta programa jakin batzuek ingurumenean eragin ditzaketen ondorioak ebaluatzeari buruzko 9/2006 Legeak, apirilaren 28koak, 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta 211/2012 Legeak, urriaren 16koak, 8. artikuluan ezarritakoari jarraituz, planak eta programak prestatzerakoan ingurumen alderdiak bateratzearren, kasuan kasuko planaren sustatzaileak hasierako agiri bat bidali behar dio ingurumen organoari, honek erreferentziako agiria egin dezan, ingurumenaren iraunkortasun txostenaren hedadura eta xehetasun maila zehaztuz.

2014ko apirilaren 11n, Soraluzeko Udalaren idatzi bat jaso genuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentu honetan. Eta idatzi horretan, HAPOren erreferentziako agiria egiteko eskatu zitzaigun. Xede horri begira, idatziarekin batera informazio eta diagnostikoaren agiria, aurrerakina eta hasierako agiria bidali ditu, 211/2012 Dekretuak 8. artikuluan xedatutakoa betez.

Aurrerakinaren helburu nagusia da, hiri eremua birgaitzeko eta berrantolatzeko prozesua burutzea; hain zuzen ere, indarrean dauden Arau Subsidiarioak behin betiko onartu zirenetik aurrera abiarazitako prozesua bukatzea. Horretarako, proposamen eta hautabide batzuk proposatu dira; laburbilduz, honako hauek:

− ***Bizitoki eskaintza:*** eskaintza hori eraldatu edota birgaitu beharreko hiri esparruetan proposatu da (erabiltzen ez diren bizitegi eta industrialdetan); beraz, erabilera horiek kokatzeko lurzoru berririk ez da artifizializatu beharko. Hiri-lurzoruan hainbat kokaleku proposatu dira eraldaketa horiek ezartzeko eta, horien

**1.- ANTECEDENTES**

De acuerdo con lo previsto en el artículo 41 y Anexo I A) de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, general de protección del medio ambiente del País Vasco, así como el artículo 4 del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, los Planes Generales de Ordenación Urbana –PGOU en adelante- deben someterse preceptivamente al correspondiente procedimiento de evaluación ambiental estratégica.

En virtud de lo establecido en el artículo 9 de la Ley 9/2006 de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente y en el artículo 8 del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, con el fin de integrar los aspectos ambientales en la preparación de los planes y programas, el órgano promotor de dicho plan remitirá al órgano ambiental un documento de inicio, a fin de que éste emita un documento de referencia en el que se determine la amplitud y nivel de detalle del informe de sostenibilidad ambiental.

Mediante escrito del 11 de abril de 2014, el ayuntamiento de Placencia de las Armas solicita al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa la emisión del documento de referencia del PGOU. A este efecto, junto con el escrito se remite un documento de información y diagnóstico, el avance y el documento de Inicio establecido en el artículo 8 del Decreto 211/2012.

El avance se pone como meta central la culminación del proceso de regeneración y reordenación del área urbana iniciado a partir de la aprobación definitiva de las vigentes Normas Subsidiarias. Con dicho fin, genera una serie de propuestas y alternativas que, resumidamente, son las siguientes:

− ***Oferta Residencial***: se plantea en ámbitos urbanos (residenciales e industriales en desuso) a transformar o rehabilitar, por lo que no se prevé la artificialización de nuevos suelos para su ubicación. Se proponen varias áreas para la localización de esas transformaciones en suelo urbano y, dentro de ellas,

barruan, hainbat hautabide eraldaketa horiek egiteko (Erregetxe A eta B, Santa Ana A eta B, Kanoi Fabrika A, B eta C, eta Paskual Txurruka). Beraz, proiektua izapidetzen den bitartean aukeratzen diren hautabideen arabera, aldatu egingo dira bai behin betiko bizitegi eta hirugarren sektoreko erabileren eskaintza, eta bai hautabide horietatik ondorioztatuko den ekipamendu publikoa. Esku-hartze horiekin batera etxebizitzen eskaintza gehigarria ere izango da; baina kopurua oraingoz ez da zehaztu, Errabal, Atxuri eta Errekalde kaleetako eraikuntza baldintzak arautu egin behar baitira. Zalantzak zalantza, proposamen horien ondorioz orotara 108 etxebizitza eskainiko dira gutxienez, eta 198 gehienez. Eskaintza hori, halaber, beste hauekin osatuko da: lizentzia baduten baina eraikitzen bukatu gabe edo saldu gabe dauden 19 etxebizitza; etxebizitza hutsen merkatutik etorriko diren 24 etxebizitza, gutxi gorabehera; eta beste 17 inguru, bestelako birgaitze lanen ondorioz sortuko direnak (Baltegieta 36, eta abar). Horiei guztiei, dena den, antolamenduz kanpokotzat jotzen direnak kendu beharko zaizkie (15 inguru). Horrela bada, benetan 150 eta 250 etxebizitza bitarte eskainiko dira guztira.

− ***Jarduera ekonomikoen eskaintza:*** Aurreikusitako esku-hartzeak ziurrenik jada artifizializatua dagoen lurzoruan gauzatuko badira ere, honako esparru berri hauek ere garatzeko aukera aintzat hartzea planteatu da: Agata mendebaldea, Agata ekialdea, Uhaska eta Mendizabal ekialdea. Guztiak Deba ibaiaren eskuinaldean daude oraingo industri garapenen segidan.

− ***Espazio libreak.*** Birgaitu, berrurbanizatu eta berreskuratu ostean, elementu berezi batzuk espazio libreen sistema orokorrean sartzea proposatu da; honako hauek, hain zuzen: Erregetxe plaza, Plaza Zaharra eta Barrixa, pilotalekua, Gila zubia, Olea parkea eta babesetxearen ondoko parkea. Zuzkidura horiek, Ezozia parkearekin batera (16.080 m$^2$), guztira 29.633 m$^2$-ko eremua osatuko dute. Bestetik, 20.000 m$^2$-ko azalera espazio libreen sistema lokalerako izango da. Azkenik, lurzoru ez-urbanizagarriko 5.000 m$^2$–ko saila aisialdiko baratzeetara bideratzea aurreikusi da. Baratze horiek sustapen eta jabari publikokoak izango lirateke eta, hasiera batean, Ezozia auzoan ezartzea planteatu da.

− ***Ekipamenduak:*** lurzoru ez-urbanizagarrian izango dituen eraginak direla-eta, gaur egungo hilerria lekualdatzea nabarmenduko da. Horrela, hilerriak orain hartzen duen lurzorua, irakaskuntzako zuzkiduretan dauden premiei erantzuteko erabili ahal izango da, besteak beste. Kokaleku berria 6.000 m$^2$ inguruko saila izan liteke, Ezozia futbol zelai aldera, aisialdiko baratzeetako proposatu den hautabidearen ondoan.

varias posibles alternativas para su materialización (Erregetxe A y B, Santa Ana A y B, Fábrica de cañones A, B y C. y Pascual Churruca), por lo que, según por las que se opte durante la tramitación, la oferta final residencial y terciaria así como de equipamiento público que resulte de las mismas variará. Junto a esas intervenciones, habrá una oferta adicional de viviendas, por el momento no cuantificada, debido a la regulación de las condiciones de edificación en las calles Errabal, Atxuri y Errekaldea. En conjunto, el total de estas propuestas con las incertidumbres expresadas, da lugar a una oferta de viviendas entre un mínimo de 104 y un máximo de 198. Asimismo, esta oferta se completará con 19 viviendas que cuentan con licencia pero están sin terminar o vender, otras 24 aproximadamente procedentes del mercado de vivienda vacía y unas 17 surgidas de otras intervenciones de rehabilitación (Baltegieta 36 y otros) a las que habrá que restar las que se califiquen en situación fuera de ordenación (alrededor de 15). Por tanto y en total, la oferta efectiva oscilará entre las 150 y 250 viviendas.

− ***Oferta de Actividades Económicas***. Aunque las intervenciones previstas se ceñirán probablemente a suelo ya artificializado, se plantea para su consideración el desarrollo de los siguientes nuevos ámbitos: Agata oeste, Agata este, Uhaska y Mendizabal este –todos ellos en la margen derecha del río Deba y en continuidad con los asentamientos industriales existentes-.

− ***Espacios libres***. Se propone incluir en el sistema general de espacios libres, tras su regeneración, reurbanización y recuperación, varios elementos singulares: las plazas Erregetxe, Zaharra y Barrixa y del frontón, el puente de Gila y los parques de Olea y el situado junto al asilo. Estas dotaciones junto al parque de Ezozia (16.080 m$^2$) sumarán una superficie total de 29.633 m$^2$. Asimismo, se calificarán 20.000 m$^2$ con destino al sistema local de espacios libres. Finalmente, se plantea ordenar, en principio en el barrio de Ezozia, 5.000 m$^2$ de suelo no urbanizable con destino a huertas de ocio de promoción y dominio público.

− ***Equipamientos:*** se destacará por sus implicaciones en suelo no urbanizable, el traslado del actual cementerio. Se liberará, así, el suelo ocupado por éste para dar respuesta a las necesidades en materia de dotaciones docentes entre otras. Se sugiere como posible nueva localización una superficie de alrededor de 6.000 m$^2$ en el lado del campo de fútbol de Ezozia y de la alternativa propuesta para las huertas de ocio.

− ***Mugikortasuna:*** Arlo honetan hainbat esku-hartze aurreikusi da. Hori horrela,

- Bergaran hasita Deba bailara zeharkatzen duen bizikleta-bideari jarraipena emango dion aukera antolatzea aurreikusi da, Soraluzen barrena Maltzagaraino iritsiko den moduan.

- Hiri-eremuaren barruko bide-sareari dagokionez, bi aukera hartu dira kontuan: A aukera, oraingo uztaia finkatuko lukeena, eta B aukera, ibilbide hori laburtu egingo lukeena; izan ere, hautabide horrekin, oraingo Arau Subsidiarioetan kanoien mendebaldean aurreikusitako zubia Baltegieta kalearen bukaeraraino eramango litzateke. Uztai hori honako elementuekin osatuko litzateke: Gabolats eta Etxaburueta kaleek osatzen duen zehar sarea, Gabolats zubia, zabaltzea proposatu dena, eta Gila zubia. Gai horrekin loturik, GI-627 errepidetik barne bideetara sartzeko bi lotuneak hobetzeko neurri osagarriak hartu beharko lirateke. Mendebaldeko lotunean bidegurutze bat antolatzea proposatu da: T itxurakoa, erdiko erreia itxaroteko erabilita, edota semaforoz hornitutako bidegurutzea. Ekialdeko lotunean, berriz, Iñasibar bihurgunean biribilgunea egitea proposatu da. Biribilgune horrek, Mendizabal industrialdera sartzeko zubi berria egitea ahalbidetuko luke, gaur egun ur arazoak sortzen dituenaren ordez.

- Santa Ana kaleko ardatza behin betiko osatzea eta Olea zubiraino baldintza egokitan luzatzea proposatu da. Horretarako, bi hautabide planteatu dira: bat, oraingo Arau Subsidiarioetan jasotakoa; eta bestea, Deba ibaiaren aurrez aurre.

- Era berean, Sagarrerreka eta Errekaldeko oinezkoen pasabideak ordeztea proposatu da, ez baitituzte irisgarritasun baldintza egokiak. Hau da, pasabide horien ordez, Baltegieta kalearen bukaeran proposatu den zubi berria eta Atxuri plazaren aurrean proposatu den oinezkoen pasabide berria egitea.

- Azkenik, bi aparkaleku handi egitea proposatu da, ibilgailuak GI-627 errepidetik hiri-eremura sartzeko lotuneen ondoan: bat Santa Ana kalean (200 leku) eta bestea Baltegietan (60-160 leku, aukeratzen den hautabidearen arabera).

− ***Deba ibaia eta honen bazterrak antolatzea:*** Deba ibaiaren eskuinaldeko hiri-eremu osoan etenik gabeko ibai bazterreko pasealekua antolatzea proposatu da; eta bestetik, ezkerraldeko ertzean, eremu horretan egin diren azken eraikinak gauzatzerakoan erabili diren irtenbideetara jotzea; baina betiere, ibaiaren bi aldeetan zutik dauden eraikinak finkatzen

− ***Movilidad:*** se prevén varias actuaciones en este campo. Así,

- Se contempla la ordenación de la solución para dar continuidad a la vía ciclista que recorre el valle del Deba desde Bergara para que a través de Soraluze alcance Malzaga.

- En cuanto al viario interno del área urbana, se consideran dos alternativas: la A que consolida el actual anillo y la B que lo acorta al desplazar hasta el final de la calle Baltegieta el puente previsto por las actuales NNSS al oeste de la fábrica de cañones. Este anillo se completa con la red transversal que constituye las calles Gabolats y Etxaburueta, así como el puente de Gabolats que se propone ensanchar y el de Gila. Relacionado con lo anterior, se requiere la adopción de medidas adicionales de mejora en los dos enlaces de acceso al viario interno desde la carretera GI-627. En el enlace oeste, se plantea la ordenación de un cruce bien en forma de T con espera en un carril central bien de un cruce semaforizado. En el enlace este, se propone una glorieta en la curva de Iñasibar lo que permitiría ejecutar un nueve puente de acceso al área industrial de Mendizabal y sustituir el que actualmente genera problemas hidráulicos.

- Se propone completar definitivamente el eje de la calle santa Ana extendiéndolo en condiciones adecuadas hasta el puente de Olea. Para ello, se plantean dos alternativas: una, la considerada en las actuales NNSS y, una segunda, en el frente al río Deba.

- Se prevé la sustitución de las pasarelas peatonales de Sagarrerreka y Errekalde, que no reúnen condiciones de accesibilidad adecuadas, por el nuevo puente que se propone al final de Baltegieta y una pasarela peatonal frente a la plaza de Atxuri.

- Finalmente, se propone la creación de dos grandes aparcamientos, uno junto a cada uno de los enlaces de acceso rodado al área urbana desde la carretera GI-627: uno en Santa Ana (200 plazas), y otro en Baltegieta (de 60 a 160 plazas según la alternativa elegida).

− ***Ordenación del río Deba y sus márgenes*****:** se pretende ordenar un paseo de borde de río continuo en toda la margen urbana derecha del río Deba, y, por otra parte, aplicar, en la margen izquierda, las soluciones que han venido dándose con ocasión de la ejecución de las últimas edificaciones construidas en la misma, y todo ello procurando, en ambas márgenes, la

saiatuz, salbuespen zehatzen bat egingo bada ere. Helburu hori, dena den, ur gaietan eskumena duen administrazio sektorialak uholde arriskuen inguruan erabakitzen dituen irtenbideekin koordinatu beharko da. 0 hautabidea gain beste bi hautabide proposatu dira –horietako bat, URAren 2006ko proiektu batean oinarritua–.

− ***Lurzoru ez-urbanizagarriaren antolamendua.*** Honako hauen bitartez egitea planteatu da:

- *<u>Kategoriak:</u> Babes Berezia, Nekazaritza eta abeltzaintzako eremua eta landazabala, eta Lur gaineko uren babesa.*

eta

- *<u>Baldintzatzaile gainjarri hauek,</u>* aurreko kategoria horiek osatuz: *KARAKATE-IRUKUTZETA-AGERRE BURU natur intereseko eremua, korridore ekologikoa, Garrantzi komunitarioko lekuak, zuhaitzi autoktono interesgarria, faunaren intereseko eremuak, nekazaritzarako eremu interesgarriak, interes geologikoko eremuak, paisaia babesteko eremuak, kultur intereseko eremuak, ingurumena hobetzeko, berreskuratzeko edota leheneratzeko eremuak, urak har ditzakeen eremuak, eremu higagarriak edo higadura-arriskuko eremuak.*

3/1998 Legeak, otsailaren 27koak, 44. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta ekainaren 30eko 16/2012 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, plan bat onartzeko eskuduntza nagusia Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionean, HAPO honetan gertatzen den bezala, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia izango da erreferentziako agiria egiteko organo eskuduna. Hori horrela, Zuzendaritza honek, 211/2012 Dekretuaren 10. artikuluan aurreikusitako <u>erreferentziako agiria</u> egin du.

## <u>2.- EGINDAKO KONTSULTAK</u>

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusi honetan, Soraluzeko Udalak bidalitako erreferentziako agiria egiteko eskaera jaso ondoren, eragindako administrazioei eta herritar interesatuei kontsultak egiteko tramitea jarri genuen abian, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean izango dituzten ondorioak ebaluatzeko 9/2006 Legeak, apirilaren 28koak, 9. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, eta plan eta programen ingurumenaren gaineko ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, xedatutakoa betez. Herritar interesatuen barruan, Udalak bidalitako

consolidación de la edificación preexistente, con alguna salvedad puntual. Este objetivo deberá coordinarse con las soluciones que se acometan por parte de la administración sectorial competente en materia de aguas en relación con los riesgos de inundación. Se plantean, además de la alternativa 0, 2, alternativas más –una de ellas basada en un proyecto de URA del 2006-.

− ***Ordenación del suelo no urbanizable.*** Se plantea mediante las siguientes:

- *<u>Categorías.</u> Especial Protección, Agroganadera y Campiña, Forestal y Protección de Aguas superficiales.*

y

- *<u>Condicionantes superpuestos</u>* que complementan las anteriores categorías: *área de interés naturalístico KARAKATE-IRUKUTZETA-AGERRE BURU, Corredor ecológico, áreas de interés comunitario, arbolado autóctono de interés, áreas de interés faunístico áreas de interés agrario, áreas de interés geológico, áreas de protección del paisaje, áreas de interés cultural, áreas de mejora, recuperación y/o restauración ambiental, áreas inundables, áreas erosionables o con riesgos de erosión.*

En aplicación del artículo 44 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, y en consonancia con lo establecido en el Decreto Foral 16/2012, de 30 de junio, de que, en aquellos casos en los que la competencia sustantiva para la aprobación de un plan resida en la Diputación Foral de Gipuzkoa, como ocurre en el presente PGOU, el órgano competente para la emisión del documento de referencia lo constituye la Dirección General de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, esta Dirección procede a emitir el presente <u>documento de referencia</u> contemplado en el artículo 10 del Decreto 211/2012.

## <u>2.- CONSULTAS REALIZADAS</u>

Recibida la solicitud del ayuntamiento de Soraluze para la emisión del documento de referencia, se inicia, por parte de la Dirección General de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, el trámite de consultas a las administraciones afectadas y al público interesado previsto en los artículos 9 de la Ley 9/2006 de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente y del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas. Dentro del público interesado, se ha incorporado, en cumplimiento del artículo 8 del

dokumentazioan proposatutakoa sartu dugu, 211/2012 Dekretuak 8. artikuluan xedatutakoa betez.

Era berean, ingurumen agiri hori eskura egon da Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiaren interneteko web orrian, www.gipuzkoaingurumena.net, herritar guztiek bidezkotzat jotako ingurumen arloko ekarpenak egiteko aukera izan zezaten.

Hauek izan dira kontsultatu ditugun administrazio, erakunde eta herritar interesatuak:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko (aurrerantzean, GFA) Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia.
- GFAko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia.
- GFAko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- GFAko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.
- GFAko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuko Bide Azpiegituretako Zuzendaritza Nagusia.
- GFAko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko Uraren Kontrol eta Kalitaterako Sekzioa.
- IHOBE.
- Uraren Euskal Agentzia.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailaren Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- DEBEMEN
- DEBEGESA
- Gipuzkoako Uren Kontsortzioa.
- Eguzki talde ekologista.
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa taldea.
- Aranzadi Zientzia Elkartea
- Soraluze Mendi Taldea
- Elgoibarko Udala
- Eibarko Udala
- Bergarako Udala
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna)

Decreto 211/2012, el propuesto por el ayuntamiento en la documentación remitida.

Asimismo, ha estado accesible dicho documento ambiental en el portal de Internet de la Dirección General de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas www.gipuzkoaingurumena.net para que, el público en general, pudiera realizar las aportaciones de carácter ambiental que considere oportunas.

Las administraciones, entidades y público interesado consultado ha sido el siguiente:

- Dirección General de Montes y Medio Natural del Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo de la Diputación Foral de Gipuzkoa (DFG en adelante).
- Dirección General de Agricultura y Desarrollo Rural del Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo de la DFG.
- Dirección General de Cultura del Departamento de Cultura, Juventud y Deportes de la DFG.
- Dirección General de Ordenación del Territorio del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio de la DFG.
- Dirección General de de Infraestructuras Viarias del Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias de la DFG.
- Sección de Control y Calidad del Agua del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio de la DFG.
- IHOBE.
- Agencia Vasca del Agua.
- Dirección de Administración Ambiental del Gobierno Vasco.
- Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental del Gobierno Vasco.
- Dirección de Planificación Territorial y Urbanismo del Gobierno Vasco.
- Dirección de Prevención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco.
- Dirección Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Sanidad y Consumo del Gobierno Vasco.
- Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.
- DEBEMEN
- DEBEGESA
- Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.
- Grupo ecologista Eguzki.
- Grupo ecologista Ekologistak Martxan Gipuzkoa.
- Aranzadi Zientzia Elkartea
- Grupo de Montaña de Soraluze
- Ayuntamiento de Elgoibar
- Ayuntamiento de Eibar
- Ayuntamiento de Bergara

- ENBA (Euskal Herriko Nekazarien Batasuna)
- Honako finka hauen jabeak: Santa Ana 30, 32, 32 W Eranskina, 34, 36, 38 eta 40, Errekalde 21 eta Baltegieta 28.

Erantzunak bidaltzeko epea bete ondoren, hauek izan dira erantzuna bidali dutenak: Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia, IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza, Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza eta Euskal Kultura Ondarearen Zuzendaritza.Informe horien kopiak Ebazpen honi atxiki zaizkio eranskin gisa.

**IHOBE** sozietateak bere txostenean adierazi digunez, bidalitako dokumentazioan aintzat hartu dute, historikoki lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten partzelak daudela. Beraz, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legeak aurreikusitakoaren arabera, 17. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatuko balitz –besteak beste, *kutsagarria izan litekeen jarduera edo instalazio bat duen edo jasan izan duen lurzoruaren kalifikazioa aldatuko balitz*– lurzoruaren Kalitateari buruzko Adierazpena tramitatu beharko litzateke derrigorrez. Horrela bada, inbentariatutako kokaleku batean edozein esku-hartzeri ekin aurretik, hasteko, lurzoruaren kalitatea ikertu beharko da nahitaez; eta ondoren, bertan utzitako hondakinak, eraikuntzak eta hondeatu beharreko sailak behar bezala kudeatu beharko dira, hondakinei buruz indarrean dagoen legeriarekin bat.

**Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak** jakinarazi digunez, badira osasunean eragin dezaketen eta aintzat hartu ez diren, edota behar beste garatu ez diren alderdiak. Bestek beste: desplazamendu aktiboen sustapena, garraio publikoaren erabilera bultzatzea, espazio irekien kalitatea hobetzea eta zaratek, usainak, edota argiteriak eragin ditzaketen eragozpenak minimizatzea.

**Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak** HAPOk aintzat hartu beharko lituzkeen irizpide batzuk ezarri ditu, natur baliabideen ziantzarekin bateragarria gerta dadin. Egokia da Karakate-Irukurutzeta-Agerre Buru eremua Babes Bereziko kategorian sartzea; baina aipatutako Zuzendaritzaren iritziz, kategoria horretan sartu beharko lirateke, halaber, bertan dauden baso

- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna)
- ENBA (Euskal Herriko Nekazarien Batasuna)
- Propietarios de las siguientes direcciones: Santa Ana 30, 32, 32 W Anexo, 34, 36, 3
- 8 y 40, Errekalde 21 y Baltegieta 28.

Transcurrido el plazo otorgado para la remisión de respuestas, se han recibido las siguientes: la de la Dirección de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa, la de la Sociedad Pública de Gestión Medioambiental IHOBE, la de la Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y las de las siguientes direcciones del Gobierno Vasco: Medio Natural y Planificación Ambiental, Patrimonio Cultural. Se adjuntan copias de estos informes como anexos a la presente Resolución.

**IHOBE** menciona en su informe que, en la documentación remitida, se tiene en cuenta la existencia de parcelas que han soportado históricamente actividades potencialmente contaminantes. Añade que, tal y como se prevé en la Ley 1/2005 de prevención y corrección de la contaminación del suelo, será necesario una tramitación de la declaración de la calidad del suelo en el caso de que se dé alguna de las situaciones incluidas en su artículo 17, entre las que se encuentra el *cambio de calificación de un suelo que soporte o haya soportado una actividad o instalación potencialmente contaminante.* En consecuencia, antes de que se proceda a cualquier intervención sobre un emplazamiento inventariado será necesario, primeramente, la realización de una investigación de la calidad del suelo y, posteriormente, gestionar adecuadamente los residuos abandonados, edificaciones y posibles tierras a excavar de acuerdo a la legislación vigente en materia de residuos.

**La Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud** informa que, existen algunos aspectos sobre el efecto que puede tener en los determinantes de la salud que no han sido considerados o no están suficientemente desarrollados. Así cita, entre otros: el fomento de los desplazamientos activos, la promoción del uso del transporte público, la mejora de la calidad de los espacios abiertos y la minimización de las molestias asociadas a los ruidos, olores y/o iluminación.

**La Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental del Gobierno Vasco** establece una serie de criterios que el PGOU tiene que tener en cuenta para resultar compatible con la preservación de los recursos naturales. Considera adecuada la propuesta de incluir el área Karakate-Irukurutzeta-Agerre Buru dentro de la categoría de Especial Protección, aunque, estima, que, esta categoría, debería abarcar, también,

masa autoktonoak eta garrantzi komunitarioko lehentasunezko habitatak, hain zuzen ere Udalak soil-soilik baldintzatzaile gainjarri baten bitartez babesteko proposatu dituenak. Txostenaren arabera, Agata mendebaldeko eta ekialdeko, eta Uhaskako lurzoru industrial berriak, hala nola lurpeko aparkaleku batentzako eta aisialdiko baratzeak ezartzeko proposatu diren kokalekuek hostozabalen berezko baso-masa autoktonoak hartuko dituzte. Horregatik, Ingurumenaren Iraunkortasun Txostenean (IIT) baso-masa horien gaineko eraginak ekidingo dituzten hautabideak aztertu beharko lirateke; eta, azkenean eremu horiek hartuko dituzten esparruen araudian, baso-masak zaintzeko beharrezkoak diren neurriak ezarri. Era berean, honakoa gomendatzen du: esparru berriak garatuko dituzten planetan, ingurumena leheneratzeko eta paisaian txertatzeko planak jasotzea. Txostenean positiboki baloratu da lurzoru ez-urbanizagarriaren antolamenduan "*Ingurumena hobetzeko, berreskuratzeko edota leheneratzeko eremuak*" baldintzatzaile gainjarria jaso izana, eta eremu horietan, Deba ibaiaren eta udalerriko erreken ibarrak, kontserbazio egoera txarrean dauden baso autoktonoak eta erabiltzen ez den harrobi bat sartu izana; eta horrez gain, eremu horietarako idazten den hirigintza araudian, eremu horien ingurumen baldintzak berreskuratzeko neurriak ezartzeko gomendatu izana. Faunari eta florari dagokienez, HAPOn gomendatu da *Ilex aquifolium* espeziea duten laukiak gainjarritako baldintzatzaile gisa ezartzea, eta uhalde-enararen habia-guneei arreta berezia jartzea. Azkenik, egoki deritzo baldintzatzaile gainjarriak ezartzea bai *Izarraitz Aizkorri-Aratz* lotura korridorerako, R-9 korridorerako eta *Karakate-Irukutzeta-Agerre Buru* lotune-eremurako, eta bai balio paisajistikoa duten hainbat eremurentzako.

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak** Kultura Ondarearen Zentroan gaur egun dagoen ondare historiko-artistikoaren zerrenda eta ondare arkeologikoaren zerrenda bidali ditu, bakoitzari dagokion babes erregimena adierazita. Hala ere, ohartarazi du, zerrenda horrek aldaketak izan ditzakeela gerora egin daitezkeen azterketa sektorial eta tipologikoen ondorioz. Txostenaren arabera, HAPOk aipatutako elementuen oinarrizko babes irizpideak jaso behar ditu, eta katalogoan egin daitezkeen aldaketak edo eguneratzeak bereganatzeko bitartekoak aurreikusi. Zuzendaritza horrek gomendatu du, halaber, kultur ondarea osatzen duten elementuak HAPOko planoetan kokatzea eta elementu bakoitzari buruzko fitxak egitea, dagokion dokumentazio fotografikoa, eta datu historiko, artistiko eta arkitektonikoak adieraziz.

**Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiak,** txostenarekin batera, Ondare Historiko-Artistikoaren Zerbitzuko katalogoko zerrenda bat eta

las masas forestales autóctonas y los hábitats de interés comunitario prioritarios presentes que, el ayuntamiento propone proteger solo mediante un condicionante superpuesto. Informa que los nuevos suelos industriales de Agata oeste, este y Uhaska, así como las localizaciones propuestas para uno de los parkings subterráneos y para las huertas de ocio, muestran coincidencia con masas de bosques naturales jóvenes de frondosas, por lo que, el ISA, debería analizar alternativas que eviten afecciones sobre estas formaciones, y, que, en la normativa de los ámbitos que finalmente coincidan con ellas, se establezcan las medidas necesarias para su preservación. Asimismo, recomienda que, los planes que desarrollen finalmente nuevos ámbitos, incluyan sus respectivos planes de restauración ambiental e integración paisajística. Valora positivamente la inclusión del condicionante superpuesto "*Áreas de mejora, recuperación y/o restauración ambiental"* en la ordenación del SNU, en el que se incluyen las riberas del Deba y arroyos del municipio, así como bosques autóctonos en mal estado de conservación y una cantera inactiva, aconsejando que, la normativa urbanística que se redacte para estas zonas, establezca las medidas necesarias para su recuperación ambiental. En cuanto a la fauna y flora, recomienda que, el PGOU incorpore, como condicionante superpuesto, las cuadrículas donde aparece la especie *Ilex aquifolium,* y que, se preste especial atención, a las zonas de nidificación del avión zapador. Finalmente, ve adecuado que se establezca condicionantes superpuestos, tanto para el corredor de enlace *Izarraitz Aizkorri-Aratz, Corredor R9-Urkiola* y el área de enlace *Karakate-Irukutzeta-Agerre Buru,* como para ciertas zonas por su valor paisajístico.

**La Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco** remite la relación del patrimonio histórico-arquitectónico así como del patrimonio arqueológico que obra actualmente en el Centro de Patrimonio Cultural con los regímenes de protección correspondiente, aunque advierte que, dicho catálogo, puede sufrir posteriores modificaciones por posteriores estudios sectoriales y tipológicos. Informa que el PGOU debe incluir los criterios de protección básicos de dichos elementos y prever mecanismos para las modificaciones o actualizaciones del catálogo. Recomienda, asimismo, que se ubiquen planimétricamente en el PGOU, los elementos del patrimonio cultural y se incluyan fichas particularizadas con la documentación fotográfica correspondiente, así como datos descriptivos históricos-artísticos y arquitectónicos de estos elementos.

**La Dirección de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa** adjunta un listado del catálogo del Servicio de Patrimonio histórico-artístico y una ficha del

SAPA (S.A. Placencia de las Armas) izeneko eraikinaren fitxa bat bidali ditu. Era berean, aldez aurreko txosten bat egin du Udalak bidalitako dokumentazioaren edukiari buruz. Txosten horretan gomendatzen duenez, azterketa zehatzagoa egin arte, ezabatu nahi diren eraikin batzuk oraingoz behintzat mantendu egin beharko lirateke; esate baterako, Santa Ana kaleko hainbat eraikin, kanoi fabrika (SAPA) eta Paskual Txurruka lantegia. Era berean, txostenaren arabera errespetatu egin beharko litzateke hiru urtegiei dagokien azpiegitura hidraulikoa, Alberdi Hermanos izenekoa.

Erreferentziako agiri hau egin ondoren beste erantzunen bat jasotzen badugu, Udalari bidaliko diogu ahal bezain laster, erantzun hori aintzat har dezan bai HAPO idazterakoan, eta bai iraunkortasun txostena egiterakoan.

inmueble denominado SAPA (S. A. Placencia de las Armas). Asimismo, realiza un informe previo del contenido de la documentación remitida por el ayuntamiento. En el mismo, recomienda, en principio y a la espera de un estudio más detallado, el mantenimiento de algunos edificios que se pretende eliminar, tales como varios situados en la calle Santa Ana, la fábrica de cañones (SAPA) y la fábrica Pascual Churruca. Asimismo, considera conveniente respetar la infraestructura hidráulica de Alberdi Hermanos correspondiente a las tres presas.

En caso de recibirse alguna respuesta posterior a la emisión de este documento de referencia, ésta será remitida al Ayuntamiento en el plazo más breve posible, a fin de que sea tenida en cuenta en la elaboración del PGOU y del informe de sostenibilidad.

## 3. APLIKATU BEHARREKO IRAUNKORTASUN PRINTZIPIOAK ETA INGURUMEN HELBURU ESTRATEGIKOAK. ERREFERENTZIAKO AGIRIAN ERABILI DIREN ARAU ETA ERREGELAMENDU ITURRIAK.

a) Soraluzeko HAPO egiteko, honako arau eta dokumentu hauetan jasotako iraunkortasun printzipioak hartuko dira funtsezko oinarritzat:

- Hiriaren eta Herriaren Iraunkortasunerako espainiar estrategia.
- Euskadiren Garapen Iraunkorrerako Estrategia 2020
- Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020).
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Ingurumeneko III. Esparru Programa (2011-2014).
- Debabarreneko Garapen Iraunkorrerako Estrategia 2020, eta beronen 2011-2015 Jarduketa Plana.
- Euskal Autonomia Ingurumena Babesteko Lege Orokorraren, otsailaren 27ko 3/1998 Legearen, 2,5,23,25,28,30,69 eta 83. artikuluak.
- Lur Legearen testu bateratua onartzen duen ekainaren 10eko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 2. eta 10. artikuluak
- Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 legearen 3. artikulua
- Ekonomia Iraunkorrari buruzko 2/2011 Legea, martxoaren 4koa
- Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 2. artikulua,

## 3. PRINCIPIOS DE SOSTENIBILIDAD Y OBJETIVOS AMBIENTALES ESTRATÉGICOS APLICABLES. FUENTES NORMATIVAS Y REGLAMENTARIAS UTILIZADAS EN EL DOCUMENTO DE REFERENCIA

a) Se tomarán como base fundamental para el PGOU de Soraluze, los principios de sostenibilidad contenidos en las siguientes normas y documentos:

- La Estrategia española de Sostenibilidad Urbana y Local
- La Estrategia de Desarrollo Sostenible de Euskadi 2020
- la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020
- el III Programa Marco Ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2011-2014
- La Estrategia de Desarrollo Sostenible de Debabarrena, 2020 y su Plan de Acción 2011-2015
- Los artículos 2,5,23,25,28,30,69 y 83 de la Ley 3/1998 de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco,
- Los artículos 2 y 10 del Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Suelo
- El artículo 3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo
- La Ley 2/2011, de 4 de marzo, de Economía Sostenible
- Los artículos 2 de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la

[1] Gehigarri gisa, honako agiri hauetan jasotako jarraibideak hartu beharko dira kontuan: "Hiri Plangintzan aplikatu beharreko iraunkortasun irizpideak. 2003", eta "Hiri Plangintza Iraunkortasun Irizpideekin Idazteko Gidaliburua. 2005 (Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa eta Ingurumen Saila)".

eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Zaintzeko Legearen testu bateratua onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 2. artikulua.

- Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 3. artikulua.
- Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen 3. artikulua.
- Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko 17/2008 Legea, abenduaren 23koa.
- Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legea.
- Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 1. eta 2. artikuluak.
- Mendiei buruzko 43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, eta Gipuzkoako Mendiei buruzko 7/2006 Foru Araua, urriaren 20koa.

b) HAPO egiterakoan, gutxienez ingurumen arloko helburu eta irizpide hauek hartuko beharko dira kontuan[1]:

- Ingurumenarekiko kalteak prebenitzeari lehentasuna ematea, kalte horiek zuzentzeko eta konpentsatzeko neurrien gainetik.
- Lurzoru berri bat sailkatu aurretik, lehendik sailkatuak dauden lurzoruak erabiltzeko aukera agortzea. Lehendik sailkatuak dauden baina egokiak ez diren lurzoruak ordeztu behar direnean, plangintzako tresna bera desklasifikatzeko bidea sustatzea.
- Lurzoru urbanizagarri berriak sailkatzeko erabakia behar bezala arrazoitzea, nahikotasuna eta egokitasuna adieraziz, eta “benetako premiei erantzuteko behar-beharrezkoa den lurzorua” bakar-bakarrik mugatuz.
- Erabil daitezkeen ur baliabideak eta lurraldearen karga-gaitasuna aintzat hartzea, lurzorua zehazterakoan, sailkatzerakoan edota kalifikatzerakoan.
- Kutsatuak egon litezkeen lurzoruak leheneratzeko eta balioesteko irtenbideak bultzatzea eta ahalbidetzea.
- Udalerriko jatorrizko guneetan eraiki eta urbanizatutako ondarea birgaitzeari lehentasuna ematea, eta etxebizitza hutsen erabilera lehenestea.
- Bigarren bizileku izango diren etxebizitzak edo hutsak ugaritu ez daitezen begiratzea.
- Hiriaren zatiketa edo sakabanaketa ekiditea, erabilera edo jarduera desberdinak behar bezala

Biodiversidad y del Decreto Legislativo 1/2014 de 15 de abril por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

- El artículo 3 de La Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas.
- El artículo 3 de Ley 1/2005, de 4 de febrero, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo.
- La Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria.
- La Ley 7/1990, de Patrimonio Cultural Vasco.
- Los artículos 1 y 2 del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas.
- Ley 43/2003, de 21 de noviembre, de Montes y Norma Foral 7/2006, de 20 de octubre, de Montes de Gipuzkoa.

b) Los objetivos y criterios ambientales estratégicos que deberán ser considerados en la elaboración del PGOU serán, al menos, los siguientes[2]:

- Priorizar la prevención de los daños ambientales frente a su corrección y compensación.
- Agotar la ocupación de los suelos clasificados antes de clasificar nuevo suelo. Cuando se trate de sustituir suelos clasificados que no son idóneos, promover la desclasificación el mismo instrumento de planeamiento.
- Justificar convenientemente la clasificación de nuevos suelos urbanizables con base a su suficiencia e idoneidad, dimensionando estrictamente el suelo “preciso para satisfacer las necesidades realmente existentes”
- Considerar los recursos hídricos disponibles y la capacidad de carga del territorio a la hora de dimensionar/clasificar/calificar el suelo.
- Fomentar/ favorecer soluciones para la remediación y valorización de suelos potencialmente contaminados.
- Priorizar la regeneración del patrimonio construido y urbanizado en los núcleos originarios del municipio y la utilización de las viviendas vacías.
- Evitar la proliferación de viviendas de segunda residencia o vacías.
- Evitar la segregación y dispersión urbana para posibilitar el mantenimiento de la correcta integración y cohesión espacial de los diversos usos o actividades con el fin de reducir la generación de movilidad.
- Fomentar las estructuras urbanas densas,

[2] Adicionalmente, deberán seguirse las directrices contenidas en los documentos: “Criterios de sostenibilidad aplicables al planeamiento urbano. 2003” y “Manual para la Redacción de Planeamiento Urbanístico con Criterios de Sostenibilidad. 2005. (Dept. de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del G.V)”

integratuta eta espazialki kohesionatuta jarrai dezaten ahalbidetuz, mugikortasun premia handirik sor ez dadin.

- Hiri egitura trinkoak eta konplexuak sustatzea, planteatutako premiei erantzun ahal izateko.
- Industri bilbeak jarduera mistoko eremu bihur daitezen sustatzea, eta jarduera ekonomikoak bizitegi erabilerekin nahas daitezen bultzatzea, baldin eta horren ondorioz eremuko bizigarritasun baldintzak kaltetzen ez badira behintzat.
- Gerta litezkeen garapenak lekutzea, eta honako baldintzak ziurtatuko diren moduan antolatzea:

  - Irisgarritasun ona, bai garraio publikoarentzako eta bai ibilgailu pribatuaz bestelako garraiobideentzako, bizikleta esate baterako.
  - Efizientzia energetiko pasiborako baldintza egokiak.
  - Ur hornidurako sarea eta saneamendu sarea, garapen horien zerbitzu egokia bermatuko den moduan erabiltzeko aukera.
  - Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoaren 213/2012 Dekretuan,urriaren 16koan, kalitate akustikoari buruz ezarritako helburuak betetzea.
  - Biodibertsitateko elementu bereziak (landaretza autoktonoa, mehatxupeko espezieen habitatak, garrantzi komunitarioko habitatak, ibai eta errekak, eta abar) ez kaltetzea.

- Bizikleta-bideen sare segurua eta jarraia diseinatzea, eremu publikoko erabilerekin eta gainerako garraiobideekin gatazkarik sortuko ez den moduan.
- Ekipamenduen eta espazio libreen azalerak herritarren premietara egokitzea.
- Zuzkiduretarako lurzoru erreserbak, berdeguneak eta espazio publikoak lekutzea, zentraltasuna eta irisgarritasuna ahalbidetuko duten baldintzak ezarriz.
- Espazio publikoa lehenestea hiri garapenak antolatzeko elementu gisa.
- Hiriko espazio publikoen aniztasuna, kalitatea eta moldakortasuna sustatzea, funtzio anitzeko espazioak diseinatuz.
- Natur ingurunea eta eraikitako ingurunea lotuko dituzten korridore ekologikoak (berdeguneak) egon daitezen sustatzea, eta hiriaren eta naturaren arteko trantsizioa erraztuko duten jarduerak bultzatzea (hiri baratzeak, herria hornituko duen inguruneko nekazaritza, baso landaketak, eta abar).
- Iturri berriztagarrietan oinarritutako energia hornitzeko instalazio deszentralizatuak ezartzeko

compactas y complejas para dar respuesta a las necesidades planteadas.

- Fomentar la transformación de tejidos industriales en espacios de actividad mixta así como la mezcla de actividades económicas con los usos residenciales siempre que no se provoque un impacto negativo en la habitabilidad de la zona.
- Localizar los posibles desarrollos y proceder a una ordenación de los mismos de forma que se asegure:

  - Buena accesibilidad al transporte público y/o a otros modos de transporte diferente al coche privado tales como la bicicleta.
  - Unas adecuadas condiciones de eficiencia energética pasiva.
  - Acceso a redes de abastecimiento y saneamiento de aguas que garanticen el correcto servicio de dichos desarrollos.
  - El cumplimiento de los objetivos de calidad acústica establecidos en el Decreto 213/2012 de 16 de octubre de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
  - La no afección a los elementos singulares de la biodiversidad (vegetación autóctona, hábitats de especies amenazadas, hábitats de interés comunitario, ríos y arroyos, etc.).

- Diseñar una red de bicicletas segura y continua sin conflictos con los usos del espacio público y con el resto de modos de transporte.
- Ajustar las superficies de equipamientos y espacios libres a las necesidades de la población.
- Localizar las reservas de suelo dotacional, zonas verdes y espacios públicos estableciendo condiciones que favorezcan las centralidad y la accesibilidad.
- Priorizar el espacio público como elemento ordenador de los desarrollos urbanos.
- Fomentar la diversidad, calidad y versatilidad de los espacios públicos de la ciudad diseñando espacios multifuncionales.
- Favorecer la existencia de corredores (ecológicos) de conexión entre el entorno natural y el construido a través de las zonas verdes, así como la presencia de actividades (huertos urbanos, agricultura de abastecimiento de proximidad, plantaciones forestales, etc.) que faciliten la transición entre la ciudad y la naturaleza.
- Facilitar la implantación de instalaciones descentralizadas para el suministro de energía basada en fuentes renovables.

aukera ahalbidetzea.

- Lurzoru ez-urbanizagarriaren zonakatzeak udalerriko landa inguruneen edo natur inguruneen zaintza egokia edo ahalbidetu behar du, edo eremu horien hobekuntza, hala egokituz gero. Horretarako, lurraldearen ezaugarriekin bat datozen erabilerak bultzatuko dira.
- Paisaia plangintzan txertatzea, Paisaiaren Europako Hitzarmenean ezarritakoari jarraituz babestu, kudeatu eta antolatu dadin sustatuz.
- Ur baliabideak eta ur ingurunea –lurpeko edo lur gaineko ur kontinentalak– babestu, zaindu eta leheneratzea, uraren Esparru Zuzentarauaren helburuak lortzen saiatuta. Ildo horretan, betiere errespetatu egingo dira ur gaietan indarrean dagoen araudiak ezarritako atzeraemangune eta zorpenak.
- 500 urte arteko errepika-aldia duten uholde-orbanez jabetzea eta planeamenduan sartzea. Hori horrela, aintzat hartuko dira EAEko ibai eta erreken LAParen 1. aldaketak E2 atalean (*Uholdeen aurka babesteko araudi espezifikoa)* eta E4 atalean (*urbanizatu beharreko eremu berrietako drainatzeari buruzko araudi espezifikoa)* exijitutako baldintzak.

- La zonificación del suelo no urbanizable deberá posibilitar la adecuada preservación o, en su caso, la mejora de los medios rurales y naturales del municipio, promoviendo un asignación de usos acorde a las características del territorio.
- Integrar el factor paisaje en el planeamiento, impulsando su protección, gestión y ordenación, tal y como establece el Convenio Europeo del Paisaje.
- Proteger, preservar y restaurar los recursos y el medio hídricos –aguas continentales subterráneas o superficiales-, intentando alcanzar los objetivos de la Directiva Marco de aguas. En este sentido se respetarán los retiros y servidumbres establecidos por la normativa existente en materia de aguas.
- Incorporar y asumir en el planeamiento las manchas de inundación hasta el horizonte de 500 años de retorno. Así, se tendrán en cuenta los requerimientos que la 1ª modificación del PTS de ríos y arroyos de la CAPV establece en sus apartado E2 (*normativa específica sobre protección contra inundaciones)* y E4 (*normativa específica sobre drenaje en nuevas áreas a urbanizar)*.

c) Hauek izan dira, zehatz-mehatz ez bada ere, honako erreferentziako agiri hau egiterakoan aintzat hartu ditugun, eta oro har onartuak dauden, arau eta erregelamendu iturriak:

c) Sin ánimo de ser exhaustivo, las fuentes normativas, reglamentarias y de general aceptación que se han tomado en consideración para la elaboración del documento de referencia son:

**Europakoa**

- Europako Kontseiluak 1992ko maiatzaren 21ean emandako 92/43/EEE Zuzentaraua, habitat naturalak eta fauna zein flora basatia kontserbatzeari buruzkoa.
- Uraren 2000/60/EE Esparru Zuzentaraua.
- 2006/118/EE Zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, lurpeko urak kutsaduratik eta narriaduratik babesteari buruzkoa.
- 2004/49/EE Zuzentaraua, zaratari buruzkoa.

**Europea**

- Directiva 92/43/CEE de del Consejo, de 21 de mayo de 1992, relativa a la conservación de los hábitats naturales y de la fauna y flora silvestres.
- Directiva 2000/60/CE Marco del Agua.
- Directiva 2006/118/CE de 12 de diciembre de 2006 relativa a la protección de las aguas subterráneas contra la contaminación y el deterioro.
- Directiva 2004/49/CE del ruido.

**Estatukoa**

- 9/2006 Legea, apirilaren 28koa, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean dituzten ondorioak ebaluatzeari buruzkoa.
- 2/2008 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa, Lur Legearen testu bateratua onartzen duena.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa, eta naturaren zaintzari buruz garrantzizkoa den estatu mailako gainerako araudia.
- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa, eta 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren

**Estatal**

- Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente.
